



RASSF-AREN ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK
2007ko 2. LAUHILEKOA 2008


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2008ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 972 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 32,5
Kutsadura kimikoa	% 15,5
Kutsadura biologikoa	% 19
Metal astunak	% 7
Hondakinak	% 11
Migrazioak	% 8
Kutsadura fisikoa	% 4
Iruzurrak	% 3



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 93an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 41,5 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 68,5) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **pistatxoa** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %30, eta kasuen %77an jatorria **Iran** izan da.


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 48 eragin ditu. Kasuen % 5,5 **Salmonella enteritidis** espezieak eragin du. Kasuen % 10 **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, eta **oilategiko-hegaztiak** kasuen % 55,5etan hartu du parte. Haragiaren jatorria **europarra** izan da kasu guztietan (% 100). Talde horretako protagonista **Salmonella sp.** izan da (kasuen % 84). Eta

alerta gehien eragin dituztenak (% 41) **oilategiko-hegaztiak** izan dira. Denak europarrak izan dira (% 100).

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen % 60,5). Mota askotako produktuak dira inplikatuak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik. Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak Asiakoak dira gehienbat.

Mikotoxinak/Biotoxink	315	Aflatoxinas	293 (93%)	kakahueteak pistatxoak	121(41,5 %) 87 (30%)	Txina Iran	83 (68,5%) 67 (77%)
Kutsadura biologikoa	183	Salmonella sp.	88 (48%)				
		<i>S. enteritidis</i>	5 (5,5%)	oilaskoa	4 (80%)	Europa	4 (100%)
		<i>S. typhimurium</i>	9 (10%)	oilategiko hegaztiak	5 (55,5%)	Europa	5 (100%)
		<i>Salmonella sp.</i>	74 (84%)	oilategiko hegaztiak	30(41%)	Europa	29(96,5%)
				haragia (behia, txerria)	19 (26%)	Europa	19 (100%)
Kutsadura kimikoa	150	Koloragarriak eta gehigarriak	91 (60,5%)	Gozokiak, ozpinetakoak Elikagai-gehigarriak	Ez dago zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik		
Metal astunak	68	Merkurioa	28 (41%)	ezpata-arraina	13 (46,5%)	Espainia	11 (85%)
		Kadmioa	16(24%)	karramarroa	12(75%)	Frantzia	12(100%)

Kutsaturako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoa izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 41 **Txinakoak** dira, jarraian **Iran** dugu: kasuen % 15. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak **Espainia** kasuen % 15,5 eta **Alemania** % 12 dira. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEB** dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (% 41).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengo da azpimarratzekoa:

- Merkurioagatik egindako jakinarazpen kopuruaren jeistea, % 60,5tik lehen lauhilekoan bigarreanean, berriz % 41. Aipagarria da kadmio jakinarazpenen agerpena, %24kin
- Salmonella enteritidis espezieak eragindako kasuen gehitzea, % 1,5tik % 5,5era, gehinetan inplikaturiko produktua oilaskoa izanda (%75)
- Koloragarri eta gehigarrien jakinarazpenen bikoiztea, %33tik % 60,5era pasatuz